Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

2080

AGINDUA, 2011ko martxoaren 28koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Laguntza Judizialeko Kidegora txanda irekiz sartzeko hautaprobak gainditu dituztenei Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen zaizkien lanpostuen zerrenda argitaratzeko dena. Hautaproba horietarako deialdia maiatzaren 31ko JUS/1653/2010 Aginduz egin zen.

Justizia Administrazioko funtzionarioen kidego edo eskaletan sartzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri komunak ezartzen dituen maiatzaren 5eko JUS/1294/2010 Aginduaren hamaseigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriaz (2010eko maiatzaren 19ko BOE), honako erabakiak hartu dira:

Lehenengoa.– Maiatzaren 31ko JUS/1653/2010 Aginduaren bitartez, Laguntza Judizialeko Kidegora txanda irekiz sartzeko hautaprobak deitu ziren (2010-06-22ko BOE). Bada, proba horiek gainditu dituzten hautagaiei –Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean– eskaintzen zaizkien plazetarik bete gabe geratu direnen zerrenda ematen da argitara (I. eranskina).

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko hautagaiek Giza Baliabideak Antolatzeko zuzendariari bidali beharko dizkiote destino-eskabideak, eta Gasteizko, Donostiako eta Bilboko EATeko sarrera-erregistroan aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko erregistro orokorrean (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Horretarako, hamar egun natural izango dituzte, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38. artikuluan ezarritako eran ere bidal daitezke eskabideak.

Postetxeetan aurkezten direnak bi modu hauetan bidali ahal izango dira:

a) Posta arruntaz. Honela eginez gero, Bilbo, Donostia eta Gasteizko EATetako sarrera-erregistroetan

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

2080

ORDEN de 28 de marzo de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se hace pública la relación de plazas correspondientes al ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se ofrecen a los aspirantes aprobados en las pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Auxilio Judicial de la Administración de Justicia, turno libre, convocadas por Orden JUS/1653/2010, de 31 de mayo.

De conformidad con lo establecido en la base decimosexta de la Orden JUS/1294/2010, de 5 de mayo (Boletín Oficial del Estado de 19 de mayo), por la que se establecen las bases comunes que regirán los procesos selectivos para ingreso o acceso en los Cuerpos y Escalas de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia («Boletín Oficial del Estado de 19 de mayo de 2010»), se resuelve:

Primero.– Hacer pública la relación de plazas desiertas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (anexo I), que se ofrecen a los aspirantes que han superado el proceso selectivo para ingreso por el sistema general libre en el Cuerpo de Auxilio Judicial convocado por Orden JUS/1653/2010, de 31 de mayo (BOE de 22-06-2010).

Segundo.– Las solicitudes de destino de los aspirantes de este ámbito se dirigirán a la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, debiendo tener entrada en el registro de entrada de la EAT de Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián y Bilbao o en el registro general del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, calle Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz en el plazo de diez días naturales, contados a partir del día siguiente al de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del Estado.

Las solicitudes podrán remitirse también en la forma prevista en el artículo 38 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las que se presenten en las oficinas de correos se enviarán en cualquiera de las dos modalidades siguientes:

a) Por correo ordinario, en cuyo caso habrá de tener entrada en el Registro de las EATs de Vitoria-

edo, bestela, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistro Orokorrean eman beharko zaio sarrera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

b) Posta ziurtatuz. Eskaria irekita aurkeztu beharko da postetxean, postako langileak eguna eta zigilua jar ditzan, igorri baino lehen.

Hirugarrena.– Eskabideak egiteko, agindu honetako II. eranskinean agertzen den eredua erabili beharko dute, jarraibide hauen arabera:

Eskabidean, gehienez ere 50 lanpostu hautatu ahal izango dira, eta organoa, herria eta probintzia zehaztuko dira.

Modu horren bidez lanposturik egokitu ezean, probintzien araberako lehentasunen hurrenkera hartuko da kontuan, zeina eskatzaileek adierazi beharko duten eskabidean.

Probintzia bakoitzean destinoak esleitzeko, hurrenkera honi jarraituko zaio:

1.– Auzitegi Nagusia.

2.– Probintzia Auzitegiak.

3.– Fiskaltzak.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundea.

5.– Dekanotzak eta zerbitzu komunak.

6.– Instrukzioko Epaitegiak.

7.– Zigor arloko Epaitegiak.

8.– Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak.

9.– Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak.

10.– Lehen Auzialdietako Epaitegiak.

11.– Merkataritza arloko Epaitegiak.

12.– Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak.

13.– Lan arloko Epaitegiak.

14.– Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak.

15.– Adingabekoen Epaitegiak.

16.– Bake Epaitegiak.

Laugarrena.– Hautaketa-ikastaroa eta praktikaaldia amaitu, eta horietako puntuak eta lehiaketa-oposizioko fasean lortutakoak batutakoan, esleipena gauzatuko da, betiere hautaketa-prozesu osoan lortutako ordena-hurrenkeraren arabera.

Bosgarrena.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, izangaiek ez dute eskabidea ezeztatzerik ez aldatzerik izango.

Seigarrena.– Hautagairen batek eskaerarik egin ez badu edo eskatutakorik egokitzen ez bazaio, hutsik

Gasteiz, Donostia-San Sebastián o Bilbao o en el Registro General del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, antes de la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Por correo certificado, en cuyo supuesto se presentarán en las oficinas de correos en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el personal de correos antes de ser remitidas.

Tercero.– Las solicitudes se formalizarán según modelo que aparece como anexo II de esta Orden de acuerdo con las siguientes instrucciones:

En el modelo de instancia podrán relacionarse hasta un máximo de 50 puestos de trabajo, indicando el órgano, la localidad y la provincia.

En caso de no corresponderle ninguno de los destinos especificados de esta forma, se seguirá el orden de preferencia por provincias que los interesados indiquen en el modelo de solicitud.

Dentro de cada provincia, los destinos serán adjudicados por el siguiente orden:

1.– Tribunal Superior de Justicia.

2.– Audiencias Provinciales.

3.– Fiscalías.

4.– Instituto Vasco de Medicina Legal.

5.– Decanatos y servicios comunes.

6.– Juzgados de Instrucción.

7.– Juzgados de lo Penal.

8.– Juzgados de Vigilancia Penitenciaria.

9.– Juzgados de Violencia sobre la Mujer.

10.– Juzgados de Primera Instancia.

11.– Juzgados de lo Mercantil.

12.– Juzgados de lo Contencioso-Administrativo.

13.– Juzgados de lo Social.

14.– Juzgados de Primera Instancia e Instrucción.

15.– Juzgados de Menores.

16.– Juzgados de Paz.

Cuarto.– Una vez finalizado el curso selectivo y el período de prácticas y sumadas estas puntuaciones a la de la fase de concurso-oposición se procederá a la adjudicación según el orden obtenido en todo el proceso selectivo.

Quinto.– Ningún aspirante podrá anular ni modificar su solicitud una vez terminado el plazo de presentación de las mismas.

Sexto.– De no formular solicitud de plazas o no corresponderle ninguna de las solicitadas, se procede-

geratu den lanpostuetako bat esleituko zaio, nahitaez onartu beharrekoa.

Zazpigarrena.– Destinoak nahitaez esleituko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hautaprobetan lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera.

Zortzigarrena.– Esleitutako destinoak behin betikoak izango dira, eta lehiaketan lortutakoen berdinak izango dira ondorio guztietarako; eta ez dute izango parte hartzerik lehiaketetan, behin betiko destinoa esleitzeko ebazpenaren egunetik hara bi urte igaro arte. Urte bi horiek zenbatzeko, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege organikoaren 529.3 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa errespetatu beharko da.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean, agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 28a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

rá a destinarle, con carácter forzoso, a cualquiera de las plazas no adjudicadas.

Séptimo.– La adjudicación de los destinos se hará con carácter forzoso, de acuerdo con el orden de puntuación obtenido en las pruebas selectivas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Octavo.– Los destinos adjudicados tendrán carácter definitivo equivalente a todos los efectos a los obtenidos por concurso, sin que puedan participar en éste hasta tanto no hayan transcurrido dos años desde la fecha de la resolución en la que se les adjudique destino definitivo. Para el cómputo de los dos años se estará a lo establecido en el párrafo segundo del artículo 529.3 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes, ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, o contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente a su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de marzo de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

LAGUNTZA JUDIZIALA / *AUXILIO JUDICIAL*

Organoa *Órgano*	Udalerria *Localidad*	Probintzia *Provincia*	Lanpostu hutsen kopurua *n.º vacantes*
Probintzia Auzitegiko Tramitazioko Bulego Erkidea *Aud. Prov. Oficina Común de Tramitación*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Informazio, Erregistro eta Banaketa Zerbitzu Orokorra *Serv. Común Información, Registro y Reparto*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 2 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 2*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 3*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 4*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 5*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 6 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 6*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 7 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 7*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lehen Auzialdiko 8 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 8*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lan-arloko 2 zenbakiko Epaitegia *Juzgado de lo Social n.º 2*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Lan-arloko 3 zenbakiko Epaitegia *Juzgado de lo Social n.º 3*	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*	1
Zigor-arloko 4 zenbakiko Epaitegia *Juzgado de lo Penal n.º 4*	Bilbao	Bizkaia	1
Zigor-arloko 6 zenbakiko Epaitegia *Juzgado de lo Penal n.º 6*	Bilbao	Bizkaia	1
Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 1*	Barakaldo	Bizkaia	1
Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegia *Juzgado Primera Instancia n.º 4*	Barakaldo	Bizkaia	1
Probintzia Auzitegiko Zerbitzu Erkide Orokorra *Aud. Prov. Servicio Común General*	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	5
Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegia (Erregistro Zibila) *Juzgado Primera Instancia n.º 4 (Registro Civil)*	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	2
Zigor-arloko Izapideen Bulego Orokorra *Oficina Común Tramit. y Ejecutorias Penales*	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	1
Adingabekoen Epaitegia *Juzgado de Menores*	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	1
Gobernu eta Zerbitzu ErkidekoBulegoa *Oficina Gubernativa y Resto Serv. Comunes*	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	1

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

Txanda ireki bidez Laguntza Judizialeko Kidegoan sartzeko den maiatzaren 31ko JUS/1653/2010 Aginduaren bidez deitutako hautaketa-probak gainditu dituzten hautagaientzako destinoa eskatzeko eskabidea.

Solicitud de destino para los aspirantes aprobados en las pruebas selectivas convocadas por Orden JUS/1653/2010, de 31 de mayo, para ingreso en el Cuerpo de Auxilio Judicial de la Administración de Justicia, turno libre.

IFZ/*NIF*: ..... Lehen abizena / *Primer apellido*: ..... Bigarren abizena / *Segundo apellido*: ..... Izena/*Nombre*:				
Hautaketa Prozesuko Hurrenkera zk. *Número de Orden Proceso Selectivo*				Harremanetarako telefonoa *Teléfono de contacto*: .....
Hautaketa-probak egin zireneko lurralde-esparrua *Ámbito Territorial en el que realizó las pruebas selectivas:*				
Destinoa lehentasun-hurrenkeraren arabera (ikus lanpostuen deialdia) *Destino por orden de preferencia (ver convocatoria de plazas)*				
Lantokia / *Centro de Trabajo*				

Hurrenkera zk. *N.º orden*	Organoa *Órgano*	Udalerria *Localidad*	Probintzia *Provincia*
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
17			
18			
19			
20			
21			
22			
23			

Hurrenkera zk. *N.º orden*	Organoa *Órgano*	Udalerria *Localidad*	Probintzia *Provincia*
24			
25			
26			
27			
28			
29			
30			
31			
32			
33			
34			
35			
36			
37			
38			
39			
40			
41			
42			
43			
44			
45			
46			
47			
48			
49			
50			

Probintziak lehentasun-hurrenkeraren arabera (Ikus lanpostuen deialdia)/

Provincias por orden de preferencia (ver convocatoria de plazas)

1	11	21
2	12	22
3	13	23
4	14	24
5	15	25
6	16	26
7	17	27
8	18	28
9	19	29
10	20	30

....., 2011ko .....aren .....a

..... , ... de..... 2011

BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARIA
ILMA. SRA. DIRECTORA DE LA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL
C/ DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ